

MALLUKA GABE ULTZIA SARRTU



Uoi
Vaiscol

ARRIZABAL'GO JAUNA TA BIDEZTIJA

(IPUÑA)

ANTXIN-ANTXINAKO aldijetan, mendi jagi ta ederr baten txuntxu-
rrian, orma sendozko gastelu ederr bat egoan. Gastelu ederr ori,
« Arrizabal » ixenagaz ezagutzen zan, eta bertan, gixon aberatz bat an-
dikiro ta nasalkiro bizi zan. Aberatz okitu arek, barriz, bere gastelua
apalnduten eta abarr, urtero-urtero txindi pillo andijak eralgiten ebazan.
Bitartian, bere inguruko txirusak ogija jan ezinik negarrez bizi ziran.
Bijotz gogorreko gastelu-jabiak, txiro gaxueri egundo ezertzurik ez-
etzooen emoten.

Egun baten, bidez-bide neketuta aurkitzen zan bidezti-txiro batek,
gastelu aretan, gaba igaroteko aterria eskatu eban.

Eta, Arrizabal'go jaunak, bideztiari, bere eskakixuna erremuskadaz
ezetzubaz abots-lakarrez esa eutson :

— Gastelu ederr-au, ezta ostatic etxia... ! Berez, eztaukazu lekuri-
k emen... ! Juan zindekez zeuk gura dozun lekura ba... !

— Ori entzunik, bideztiak, apal-apalik esan eutson :

— Zeuri iru itaun egiten izten badaustazu, bertatik poz-
pozik joango naz...

— Tira ba, bertatik arin alde egitiarren iru itaunak zeuk gura
dozunlan zuzendu egidazuz ba; neuk al-dodanez poz-
pozik erantzungo dautz et...

Zaldunak irri-barrez esan eutson,
Orduan bideztiak itandu eutson :

— Gastelu onetan zure aurretik nor bizi zan ?

— Neure aita. — Zaldunak erantzun eutson.

— Eta zeure aita baño lenago nor egoan bertan ?

— Neure aitita.

— Eta zeure ondoren nor bixiko da ?

— Jaungoikoak gura badau gura... orain emetik urrintxu aurkitzen
dan neure semia... — Gastelu-jabiak oldozkor esan eban.

Orduan, bidezti-agurgarriak begi errukitsuabaz begiratuta abots-
gozoz esan eutson.

— Zuetariko bakotzak, etxe onetatik, alditxu bat igarota beste
barik, urrengoari lekua itxijaz alde-egin biarra ixaten badau... gastelu
ederr au, ondo begiratu ezker, ostatic-etxe bat baño, ezta... eta... zuek,
bertan, bein-befieko ostalari batzuk baño ezarrie... Beraz, olan dalarik,
zeure gastelu onegaz, etzaitzez arrotu ez larregi, arduratu, zeure aurre-
kuak lez ba, usterik gitxien dozunian gustija itxi biarra ixango dozu
ta... Gastelua ederrtzen eta apaintzen eralgiten dozun txindija eta
geyago barriz, bijotz zabalez ta esku-zabalez txiro-arrtian zabaldu egizu
ba ? ta, bertatik alde egiten dozunian, an donokijan, zeure egifen
onakaz eginiho jauregi ederra, jauregi betikorra, aurkituko dozu...

Emeko aberastasanak apurr baterako baño ezitza; angoak barriz
beti-betiko...

Ta « Arrizabal'go » jaunak, itz ikutugarri orreikaz bijotza bigunduta
ebalarik, bidezti agurgarriari, gaba igaroteko aterria gogo-
onez emon eutson. Eta gixon aberatz arek, txuniko itz ederrak egunoro
oldoztuten ebalarik, aurrerantzian eskeko-txiroeri esku-zabalez lagundubaz ta
beste egifen on asko eginaz ta abarr, donokijan jauregi ederra, jauregi
betikoa egiten ifardu eban.

Bere buru ta bijotzian, itz oneik ondo irarrita geratu ziran.

« Emeko aberastasanak apurr baterako, angoak barriz, beti-betiko ».

BUSTINTZA TAR ERROSEK.

« Hossana » rik entzungarriena abestuko dabe, Oztarrku biyak batera
klusiaz...

Maltagarriak iges eifiaz, itxarritu nintzan...
Eta itxarrkundiaz, usain goxo aizekorraz gelditu zan nere lo-gela
tokia...

Gorbeya txikiaren aurrpegia gorri-gorri eguan mukurr-gogorraren
argi ta berotasunaz, eta bere txingarrak abeska zebillan, erre nai ez
nairik, sukalde zarreko suarrtean, Abenda zarran antzera !...

— Ze polita ipuin ori, aitona !... esan eutsan Gorbeyak, bere
aitona zarrak esku txikiyaz umearen aurrpegiz kurutz deuna egiten
eutsenez batera... Eleizako bederatzi kanpa-ots entzuten ziran...

« MAITELORE »

Otxandiano'ko burdinñoia, sutegiak eta
ultzegiñak baño ospetsubagorik ezta izan
munduban.

Amaika ultze ederr egin izan eben gure
asabak, antze : Layak lakoxe andijak,
orratza lako txikijak, biribillak, lau-ortze-
kuak; baita txapeta baño buru zabalagua
epoenak be.

Ultzegillerik ospetsubenetako bat Bekola
zan.

Ez inok baño lundegi ohea ebalako, ba,
an danak ziran alkarren antzekuak: Sute-
gija bere su-bizi ta kebidiarekin ; aren
ultzian, auspo andija multikuaren tirakadai
erantzunaz puts eta puts; sutegi arrian
arriko aska bat urez betia, biarr zanian
burdin-gorikubak oltzuleko ; alde balian,
jungura (yungue) bere espan-lodijen ar-
rtian, zulo biribil bat ebala; arako txokuan,
ikalz-antzaren meta-baltza ; ate-buruban
txirringa bat, aren gañetik ziarr piru bat
dingiliz zala, etia berez itxi zaiten.

Orra or ultzegiñaren landegija.
Opizika etzan gaitza; baña bai polita.

Naiuka zan, eskerreko eskubarekin bur-
narija-arrtibaz, onen muturra sulan sarr-
tzia, gorritu arrtian an eukitza, atara ta
jungura gañera eruatia, emen eskumiaz
dindi-danba mallukoza metutia, biribil-
tzia, zorrotutia, azkenian zuloatik sartzia
ta buruba ataralia.

Eta baña... zertan ditardut, ultzegiñan ?
Nik bai dodala ultzia buruban ! Ba... nere
asuna etzan ori, besterik baño.

Nere asuna, Bekola ultzegiñaren jazokun
burregarri bat edestulia, zan ba au, bera
baño jakintsubago ziranai, egiten ebazan
ultziak baño ziri andijagoak sarritzen, os-
petsuba zan...

Egun batez, bere eguneko lana amaitu
ondoren, garrbitzera etxera juan barik,
bere koipe gutxiak aldan ezuzala, arda-
netze edo trabenara juan zan.

Erugazan prakak, eskumako belau-buru-
bain, zulo andi bat agiri eben, eta zulo aren
bitartez, belau zikin bal-baltza ikusten
zan.

Ardanetxian barriz, erriko jauntzurik
urtenekak egozan. Danak asi jakozan
Bekola'ri, irri ta parra, inun diran izekak
eta purruzadak egiten, bere belau baltza
zula bide. Erroka deunari kopetentzija egie-
len asi-ete san eta abarr esunaz.

Bekola, bape estutu ez, baña, juan arein
purrustadagaitik, eta pekoitsa baño seri-
juago jarririk esaten dautse :

— Mutillak e... esan legike eze... egundo
eztozuzela belau-bururik ikusi.

— Orren baltzik ez beintzat, erantzun
eutsan aretaiko batek.

— Ba jaunak, jardetsi eban Bekola'k —
ganorabako barriak laga egiatuz alde
batera, ta nai ba' dozube, ontzako-urre
bana jokatuko dautsubet danoi, emen ba'
dala belaua, nere belau au baño bal-
tzagua.

Jau areik, belau a baño baltzagorik
ezin aurkiku etekiala munduan usterik,
ontzat aritu eben errotzea, ta bai lastern
danak ontzako bana jokatu be.

Orduan, Bekola'k, jasoten dau bere es-
kerreko prakak belau-burunaño, ta an
gorderik eukan belaua, praka zuloatik
ikuste zana baño askogaz zikiñago ta bal-
tzago ageritu zan, ta danak agobete agi-
negaz ilxi.

Eta jakitza, Bekola'k jokua trabazirik,
orra, malluka gabe ultzia sarritu jakitunai,

« ABELETXE »